



Harria parkea jaien erdigune bada ere, auzune guztietara zabalduko dituzte jarduerak.

Serafinekin datorren urtera arte esango diete udako jaiei altzatarrek

Arriagako serafinak bigarrenenez ospatuko dituzte asteazkenetik astelehenera bitartean, Altzako zazpi auzuneetan. Horietan barrena ibiliko den batukadak jaien hasiera iragarriko du eta Harria parkeko txosnagunera eramango du Txupin.

✎ Maitane Aldanondo Gabilondo

📷 Inaxio Esnaola Aranzadi

Jolastokietako jaien ondotik, Altzako auzuneetako azken festak helduko dira asteburuan: Arriaga serafinak. Berezko jairik ez zuten zazpi gune alaitzeko antolatzea erabaki zuten hainbat lagunek duela pare bat urte, eta, hala, Erroteta, Arrizar, Arriberri, Santa Barbara, Elizasu, Los Boscos eta Darieta lotzen dituzten festak sortu zituzten. Iazko estreinaldi arrakastatsua

ondoren, bueltan dira, asteazkenetik astelehenera, hilaren 24tik 29ra, luzatuko den jarduera zerrendarekin.

Lehen urtea izanda zalantzak bazituzten ere, «oso ondo» joan zela dio jai batzordeko kide Roberto Arinek. «Jendeak lagundu zigun eta parte hartzera animatu zen. Balorazioetan, hamarretik zortzi bat jarri ziguten». Are gehiago, eskerrak ematen dizkiete

«hilik dagoen auzo honetan ondo pasatzeko zerbait egiteagatik».

Badaki auzotarren artean batzuk jaien esperoan daudela. Haientzat eta gainerako adin guztietako bizilagunen tzat, «denetarik» antolatzen saiatu dira; baita zazpi guneetara iristeko ahalegina egin ere, San Tomas eta bestelako jardueren bidez bildutako dirua baliatuta. «Poltsa» osatu dute eta horrek, aurrekontua handitzeaz gain, aukera eman die jende gehiago batzeko.

Aisiarako aukera gutxi dagoen auzune horietan jaiak antolatu izana esker onez hartu dute bizilagunek

Batukadarekin ekingo diote antolatutakoei. Elizasutik abiatuta, auzune guztietan barrena joango dira, eta Errotetara iristean, bizilagun batek etxeko balkoian duen Txupin jasoko dute. «Guk egindako panpina bat da, jaien protagonista. Bizarzuri adardun baten modukoa [barrez]». Harria parkera eramango dute pregoirako eta txosnan zintzilikatuko dute, azken egunean agur esan arte.

Danborrada, berritasun

Astelehenean helduko den une horren aurreko bost egunetan berrikuntzarik ez da faltako. Esaterako, danborrada aurrera eramango dute eta parte hartzeari dagokionean, jada, arrakastatsua izan da, hainbat lagun kanpoan utzi behar izan baitituzte. «Ehun genituen eta gehiago izatea astakeria iruditzen zitzaigun», aitortu du Arinek.

Asko makilak astintzeko aukerarik gabe geratu badira ere, beste hamaika kontutan parte hartzeko aukera izaten jarraitzen dute auzotarrek: kantujira, Extremadurako dantzak, motozaleen topaketa, DJ-ak, liburu aurkezpenak... Altzako Historia Mintegiak egindako horma irudian jaso duten historiaren berri emango du: «Asko inplikatu dira, gogotsu daude eta esan digute gauzak egin nahi dituztela». ●



ASTEAZKENA 24

19:00

Kale antzerkia, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik. *La última y nos vamos*.

OSTEGUNA 25

17:00

Areto futboleko txapelketa eta futbolarekin lotutako jokoak haurrentzat. Futbito zelaian, kiroldegiaren aurrean. Altza Futsalek antolatuta.

18:00

Taupada Samba batukada auzoko kaleetan.

19:00

Pintxo-pote eta urdaiazpiko mozketa. Carrasco tabernan.

19:30

Txupinen lekualdaketa, aurreko urteko lehiaketako irabazlearen balkoitik Harria parkera.

20:00

Pregoia Harria parkean, Altzako Inauterietako konpartsek emango dute.

20:15

Txupinen igoera Harria parkean eta jaien hasiera.

20:30

II. Balkoi Apainduen Lehiaketako bereizgarrien banaketa. Harria parkean. Arrizar taldearen aurreko zabalgunea 11 kontzertu Klaxon taldearen eskutik, Arrizar tabernak eta Peña AltzAthletic elkarteak antolatuta.

21:00

II. Argazki Lehiaketa gure jaien inguruan.

Luntxa Santa Barbarako jubilatuen etxean.

Landa Bila clown ikuskizuna, Ander Santxez aktorearen eskutik, Serranito elkarteak antolatuta. Harria parkean.

21:30

Animazio musikala futbito zelaian, kiroldegiaren aurrean. Altza Futsalek antolatuta.

OSTIRALA 26

18:00

Txokolate jana eta apar festa kiroldegiaren ondoan, Boskotarrak elkarteak antolatuta.

Liburu aurkezpena eta sinadura:

Bramante (Diego Muñozena), *En el fondo de las aguas* eta *Rafael Amor* (Maria Devesakorena), *Primaveras en el*

jardín de los sueños (Dory Lansorena) eta *Aviso de galerna* (Vane G-rena). Harria parkean.

19:00

Drag queen ikuskizuna familientzat, Yogurinha Borovaren eskutik. Harrian.

Kontzertuak Gresi tabernan: La Fabrika de Boina eta THE... seo.

19:30

Poteo herrikoia Roteta eta Arrizar kaleetan, Gautxori txarangak lagunduta.

Poteo herrikoia Elizasu auzoan, Sastakai txarangak lagunduta.

20:00

Kuadrillen aurkezpena, Torras DJ-aren musikak lagunduta. Harria parkean.

20:30

Sardina jate herrikoia, Elkartasuna auzoko elkartearen eskutik. Santa Barbaran.

21:00

II. Rap Jaialdia kiroldegiaren ondoan: SNKT, ELC31 O eta EL ORBE&KOST.

23:00

Dantzaldia Tsunami orkestraren eskutik, Harria parkean.

LARUNBATA 27

10:00

Bigarren eskuko merkatua Harria parkean.

10:30

Umeentzako futbol sala txapelketa Naranjito parkean.

11:00

Zumba, Riva tabernak antolatua, Happy Studio Dande & Fit eskolaren eskutik. Elizasu plaza-txoan.

Haurrentzako puzgarriak Elizasu auzoan. BM supermerkatuen eskutik.

11:30

Haurrentzat Saskibaloit Txapelketa Naranjito parkean.

12:00

Monterrey Surferr taldearen kontzertua, Arriberri Auzunea 16 plaza-txoan.

12:30

*Superheroia*k antzerkiaren antzezpena R konpainiaren eskutik, kiroldegiko eszenatokian.

Kalejira Donostiako Udal Txistulari Bandarekin. Auzoan zehar.

Pintxo-pote herrikoia, Riva tabernak antolatua, Koldo Boken Snakers DJ-ak girotua, Elizasu plaza-txoan, Larratxo pasealekua 98.

14:00

Piknik herrikoia kanpoko igerilekuko atzealdean dagoen zelaian.

16:00

II. Tute Txapelketa, Riva tabernan.

17:30

Danborrada kiroldegitik.

18:00

Dantza erakustaldia Smokescreen, Pauso-K eta Showtimeren eskutik. Kiroldegiko oholtzan.

Dantzaldia Santa Barbara jubilatuen etxean, Jon Insuaren eskutik.

Irutxuloko Hitz

Sagardo Eguna Harria parkean, trikitilariekin.

Harria parketik, Bidasoako erraldoiak eta buruhandiak irtengo dira.

18:30

Kontzertua Ojos Que No Ven taldearekin. Ani tabernan.

19:00

Bolinga DJ-aren emanaldia Arri-Zar tabernan.

21:00

I Arriaga Rock jaialdia: Bellcross, Ezinezkoa eta La Fabrika De Boinas. Kiroldegiko eszenatokian. Danborrada Harria parkera iritsiko da.

21:30

Bingo musikatua. Harria parkean.

22:30

DJ emanaldia: Junka & The Gogos eta Txolas DJ-ak. Harria parkean.

IGANDEA 28

10:30

Kiroldegitik abiatuko dira topaketan parte hartuko duten motorra guztiak.

II. Toka eta Bote Txapelketa Santa Barbara auzoko Elkartasuna auzokideen elkartearen.

11:00

Altzaren historiari buruzko ibilaldia. Horma irudiaren aurkezpena Altzako Historia Mintegiaren eskutik. Irteera Tomasene K.E.

11:30

Topaketan parte hartuko duten motorrak Harria parkeko geldialdia egingo dute.

12:00

Motorran ibilbidea kiroldegian amaituko da, eta guztiok disfrutatu ahal izango dugu Totem rock taldearen kontzertuaz.

Ardo Eguna Harria parkean, Viguisaren eskutik.

12:30

Donostiako musika eta dantzako ikasleek auzoan zehar kalejira egingo dute.

Kantujira auzoan zehar.

13:00

Saiheski jate herrikoia, Riva tabernak antolatua, Elizasu plaza-txoan, Larratxo pasealekua 98.

14:30

Paella jate herrikoia, Harria parkean.

15:30

Bingo musikatua, Harria parkean.

16:00

II. Mus Txapelketa La Terraza tabernan.

Dardo txapelketa Kanada tabernan.

16:30

Haurrentzako jolasak Roteta-Goikoa parkean.

17:00

Kultur ekitaldia: sevillanak, *Alma*, *Corazón y Baile*, Extremadurako dantza tipikoak eta *Namysto* Ukraina-Euskadi elkartearen eskutik. Harria parkean.

17:30

Txokolate eta bizkotxo banaketa Gurea elkartearen.

18:00

Kuadrillen festa: trikitilariak, Torras DJ-a eta jolasak.

20:00

Balkoien lehiaketaren sari banaketa Harria parkean.

20:30

Txupinen jaitsiera eta kalejira handia txupinekin eta trikitilariekin. Harria parketik, Elizasura.

ASTELEHENA 29

Ferianteei esker, barrakek prezio merkeak izango dituzte.